

OINARRIZKO EKINTZAK

Oinarrizko ekintzak gure maskoten zaintza eta ongizatea bermatzeko jarduera praktikoak dira. Zerbitzu hauek eguneroko beharrak erraz kudeatzeko diseinatu dira, erraztasuna eta kalitatea eskainiz. Hona hemen gure enpresaren oinarrizko ekintzak:

- **Lepoko adimendua:** Hornitzaie bati erostien diogu eta guk gure gustura programatzen dugu. Lepokoa erosteko denda fisikora joan beharko duzu eta bertan produktua ikusi eta erosi ahal izango duzu, denda fisikora etortzeko denborarik ez baduzu, lepokoa erreserbatu dezakezu Whatsapp edo Instagram bidez deituz edo idatziz eta ahal duzunean jasotzera etor zaitezke. Eta azkenik, ordainketa denda fisikoan bertan egin beharko da eskudiruz edo txartelarekin.
- **Albaitaritza zerbitzua:** Albaitaritza zerbitzurako, hitzordua hartu beharko duzu telefono zenbakira deituz edo Whatsapp edo Instagram bidez idatziz. Larrialdia bada, etor zaitezke, baina extra bat ordaindu beharko duzu, zure maskota zaintzen ari garelako aldez aurretik hitzordurik egin gabe. Ordainketa kontsulta amaitzean egin beharko duzu, eta prezioa zure maskotak izan duen arretaren arabera aldatuko da; prezioa ere garestiagoa izango da urgentziatzko kontsulta bada.
- **Adiestramendua:** Lehenik zita eskatu behar duzue, horretarako gure sare sozialetara edo gure zenbakira whatsapp mezu bat bidaltzearekin nahikoa da. Mezuan ze txakur arraza den eta beren espezifikazioak jarri behar dira (adina, pixua...)
- **Ileapaindegia:** Lehenik zita eskatu behar da, gure sare sozialetik edo whatsapp-etik eskatu daiteke, horren bidez zita zehaztuko dugu. Kontuan izan behar da maskotaren tamaina eta egin nahi dena, eta horrekin prezioa aldatu egingo da. Gure zerbitzuak ordaintzeko, txartelarekin edo eskudirutan ordaindu ahal izango duzu dendan bertan, zure txakurrak gure tratua jaso ondoren.
- **Maskotentzat hotela:** Lehenik, gure hotelera etorri beharko duzu erreserba egiteko. Bestela, lehen esan bezala, gure WhatsApp-etik idatzi dezakezu edo Instagrameko kontuaren bidez gurekin harremanetan jar zaitezke erreserba egiteko. Ondoren, hotelera etortzen zarenean, maskotaren erregistroa egin beharko dugu; hau da, maskotaren izena, osasun-egoera, ohiturak eta zure datuak jaso behar ditugu. Txakurra utzi aurretik, erreserba ordaindu beharko duzu. Alojamentua prestatua egongo da: gela erosoak eta jolastoki seguruak izango dira eskuragarri, eta maskotak behar duen janaria eta ura ere izango ditu. Baita ere, maskotak jolasteko edo korri egiteko gogoia sartzen zaienean gure hoteleko kanpoko jardinerara joateko eskubidea edukiko dute.

- **Etxeko zaintza:** Gainerako ataletan bezala, gure zerbitzuak etxeko zaintza erreserbatzeko, dendara etorri beharko duzu fisikoki edo gurekin harremanetan jarri Whatsapp edo Instagram bidez. Erreserba egiten dugunean, txakurraren arraza esan beharko diguzu, nola deitzen da, bere ohiturak, zuen datuak eta helbidea, erreserbaren eguna iristen denean arazorik gabe joan gaitezen.